

## **San Agustinen AITORPENAK liburutik (Hiponako San Agustinen jaia abuztuaren 28an)**

Eta liburu haiek neure baitara itzultzeko ohartarazirik, neure barruenean sartu nintzen zu gidari, eta hala egin ahal izan nuen, nire laguntzaile bihurtu baitzinen. Sartu eta ikusi nuen neure arimaren begiez, edozelakoa zelarik ere, neure arimaren begien gaitasunaren gainetik, neure adimenaren gainetik, aldaezineko argi bat; ez arrunt hau eta haragi ororentzat ikusgarri litzatekeen hau, handiena eta biziena izanik ere, dena bere handitasunez beteko lukeena izanik ere. Ez zen hori, beste argi bat zen.

Eta ez zegoen nire adimenaren gainean olio uraren egon ohi den bezala, ezta zerua lurraren gainean dagoen bezala; gorenean zegoen hura, hark egin baininduen, eta ni behearenean nengoen, hark egin baininduen. Egia ezagutzen duenak ezagutzen du argi hura

Oi betiko egia  
eta egiazko karitatea  
eta bihotzeko betikotasuna!

Zu zara nire Jainkoa,  
zure irrika naiz gau eta egun!  
Lehenengoz ezagutu zintudanean,  
zuk zeuk jaso ninduzun zeugana, ikus nezan  
bazela ikusteko Nor bat,  
eta ez nintzela artean hura ikusteko gai.

Eta nire begien ahuldadea distiraz bete zenuen  
zure errainuak nigana bortizki gidatuaz,  
eta maitasunez eta beldurrez dardaraka jarri nintzen.  
Konturatu nintzen zein urrun nengoen zugandik,  
bion arteko egundoko desberdintasunagatik,  
zure goitiko ahotsa entzungo banu bezala:  
«Adinekoen janaria naiz; hazi zaitez eta jango nauzu.  
Ez nauzu, ordea, ni zu bilakatuko  
gorputz-janariarekin gertatu ohi den bezala,  
baizik eta zu zara ni bilakatuko».

[...]

Eta bila nenbilen, zutaz gozatzeko gai egin nintzakeen adorea nola topatuko, eta ez nuen aurkitu, harik eta besarkatu nuen arte Jainkoaren eta gizakiaren arteko bitartekoa, Jesu Kristo gizona, gauza guztien gain dagoena, Jainko bedeinkatua menderen mendetan, hots egin eta esaten zidana: Neu naiz bidea, egia eta bizia, eta neure argalkeriagatik nik jan ezin nuen janaria haragiarekin nahasten duena, zeren Hitzaren haragi egin baitzen, gure haur-izaera zelata-eta zure jakinduria esne bihurtu zedin, zeinen bidez kreatu baitzenituen gauza guztiak.

[...]

Berandu maitatu zintudan, edertasun hain aspaldikoa eta hain berria, berandu maitatu zintudan! Eta hara: ene barnean zeunden zu eta kanpoan ni, eta kanpotik nenbilen zure bila; eta hain desitxuratua nintzen, zuk kreatuak ziren gauza eder hauetan murgildurik nenbilen. Nirekin zeunden zu, baina ni ez zurekin. Gauza haiek atxikitzen ninduten, zugaran izan ezean izango ez zirenek. Dei egin zenidan, deiadar egin zenidan, eta hautsi zenuen nire gorrieria; distira egin zenidan, dirdira egin zenidan, eta uxatu zenuen nire

itsutasuna; ufatu zenidan zeure lurrina eta arnastu nuen, eta zure irrikaz nago; zutaz gozatu nuen, eta goseak nago eta egarri; ukitu ninduzun, eta kiskaldu nintzen zure bakean.